

# **HEZKIDETZA PLANA 2014-15**

- 1. Sarrera**
- 2. Egungo egoeraren oinarriko diagnostikoa**
- 3. Helburu nagusiak eta espezifikoak**
- 4. 2014-15 urterako kronograma**
- 5. Hurrengo urteotarako helburuak eta jarduerak**
- 6. Memoria eta ebaluaketa**

## **HEZKIDETZA PLANA**

### **1. Sarrera**

Amparo Tomé irakasleak esaten duen moduan, gizarteko edozein erakunde aztertzen dugunean, badakigu gizonezko jaiotzeagatik abantaila eta pribilegio batzuk daudela eta emakumeentzako, ordea, zailtasunak eta desabantailak direla nagusi esparru publikoan eta pribatuan duten egoerari dagokionean.

Azkenengo hamarkadetan egoera aldatzen joan den arren, oreka bat lortzearen aldeko joera da nagusi, hau da, gizonezkoen egoerari kalterik egin gabe, emakumeek emakume jaiotzeagatik bizi duten bisibilitaterik eza eta indarkeria ezabatzea apurka-apurka.

Berdintasun ezaren kontra lan egiteko erakunde asko jarri dira abian, emakumeen eskubideen aldeko legeria onartzen eta esparru publiko zein pribatuetan emakumeek bizi duten egoera hobetzeko lan egiten. Euskal Autonomi Erkidegoko legeria arlo honetan Europako aurreratuenetakoa da zalantzarik gabe. Izan ere, berdintasun arloa Europako eta munduko nazio aurreratuenen agendan dago oraindik; horrek esan nahi du ez dagoela munduan gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortu duen herrialderik. Hezkuntzari dagokionez, argi dago hezkuntza sistemaren lana ezinbestekoa dela sexuen arteko benetako berdintasuna lortu nahi baldin badugu.

Mogimendu feministei esker eta erakundeek onartutako legeei esker, emakumeek esparru asko eta asko irabazi ditugu zalantzarik gabe, hala ere, lanaren banaketa sexualari dagokionez, gizartean sendo errotuta dauden kultur arauak daude eta horren ondorioz, emakumeek ordu gehiago ematen dituzte seme-alabak zein gurasoak zaintzen eta baita etxeko lanak egiten ere. Hori dela eta, ez dute aisialdirako denbora librerik eta gizonek, ordea, aisialdirako hainbat ordu dituzte egunero, familiaren zaintzaren erantzukizunik ez dute eta emozio eta sentimendu mundu horretako arazoei aurre egiteko arazoak izaten jarraitzen dute.

Jaiotzen garenetik laster ikasten dugu zer dagokion gizonezkoen unibertsoari eta emakumezkoenari. Eskola zentroak eta gure kasuan ikastola ez da bizi kultur arau horietatik at, gizarte sisteman bizi garela eta mendebaldeko gizarte kapitalistan bizi garela sistema patriarkal baten menpe. Famili baten jaio gara eta familiarengandik ikasten dugu lehenengo eta behin, baina gizarte garatuetan bizi garen gizaki oro eskoletan ematen dugu bigarren pausua.

Antropologia eta giza-psikologia arlotik egindako azterlanen arabera, eskolak kultur arauak sortu eta kopiatzen ditu, beraz, sexismoa eskolan ere sortu eta

## **HEZKIDETZA PLANA**

birsortzen da. Gizon eta emakumeen giza harremanak egituratzen duen elementua da sexismoa, hau da, desberdintasunak sortu eta mantentzen ditu. Hori dela eta, gizonek gizon izateagatik abantaila handiak dituzte (euren lanagatik gehiago irabazten dute, erakunde finantzarioetan, elizan, politikan zein unibertsitateetan boterea mantentzen dute); emakumezkoen kasuan, ostera, euren lanak ez du balio berdina, emakumeen lorpenek ez dute baliorik, etxean egiten duten lana ez da kontuan izaten behar den moduan eta emakumeek gizadiaren historian izan duten partaidetza aktiboa ez da aintzatesten historia, literatura, zientzia edo filosofiako liburuetan.

### **1. Egungo egoeraren oinarritzko diagnostikoa**

Ikastola irakaskuntza eta ikasketarako espazioa da, beraz, harreman eta elkarbizitzarako lekua. Gure ikastolaren diagnostiko xume bat egin ahal izateko oinarritzko arloak izan ditugu kontuan, eskola antolamenduari dagokionez, hain zuzen ere. Izan ere, "begirada berri" bat erabili dugu behaketa arinik ez egiteko eta benetan jakiteko zer gertatzen ari den eta benetan aldaketarako eta hobetzeko baldintzak ematen diren ikusteko edo baldintza horiek lortzeko gai izango garen jakiteko.

Guretzako oso garrantzitsua da jakitea zeintzuk diren gure puntu ahulak eta zeintzuk indarguneak. Badakigu zentro bakoitzak bere kultura propioa duela, bere historia eta bilakaera. Horrexegatik, sexismoaren analisi sakon bat egitea behar beharrezkoa da, hezkuntza praktiken inguruko diagnostikoa egiteko oinarria izango delako eta hortik abiatuta egin beharko dugulako genero perspektibadun antolakuntza berri bat, bazterketa eta estereotipo sexistak identifikatu ostean.

Gure ikastolako datu zehatzak izan ostean, berdintasun-hezkuntzari dagokionez gabeziak daudela ikusteko gai baldin bagara bide horretatik lan egiteko beharrezko antzemango dugu. Horrexegatik, hezkidetzari buruzko diagnostiko xumea izan ostean, bagenekien gai izango ginela gure ikastolako langile guztiei beharrezko hori azaldu eta berdintasunean hezteko beharrezko ikustarazteko.

Hori guztia kontuan hartuta, ikastolako gurasoen kontseiluak oniritzia eman zion hezkidetzaren plan bat egin eta garatzeari. Horren ostean osatu zen hezkidetzaren batzordea eta hezkidetzaren arduraduna izendatu zen. Hein berean, zuzendari pedagogikoak irakasleen klaustroan plana egin eta garatzeko erabakiaren berri eman zuen.

Arestian esan bezala, oinarritzko diagnostiko bat egin dugu, nahiz eta kontuan izan dugun diagnostikoa zenbat eta sakonagoa izan lagungarriagoa izango dela. Horrela, gure ikastolan sexismo maila zein den jakiteko, ondoko arloak behatu eta aztertu ditugu.

## **HEZKIDETZA PLANA**

Lauro Ikastolan 1.888 ikasle daude Haur Hezkuntzan hasi eta Batxilerrera arteko ibilbidea egiten. Hortik 1.000 mutil daude eta 988 neska. Pertsonalaren sexuari dagokionez, 109 emakumezko ditugu eta 36 gizonezko irakasleak eta irakasleak ez den pertsonala kontuan hartuz.

Zuzendaritza taldean, Ikastolako zuzendari nagusia eta zuzendari pedagogikoa emakumezkoak dira eta zikloetako zuzendariei dagokienean, Haur Hezkuntzako zuzendaria emakumea da eta Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilerreko zuzendariak gizonezkoak dira.

Ondoko arloak behatu eta aztertu genituen:

### **a) HIZKUNTZA**

Idatzizko hizkuntza aztertu dugu, erabilera sexista egiten dugun ala ez aztertzeko, horretara, familiarekin ditugun komunikazioak euskaraz eta gazteleraz, barne-komunikazioak, webguneko hizkuntza etab. Kasu honetan, alde handiak ikusi ditugu; izan ere, idatzi batzuetan generoa kontuan hartzen dela ikusten da, batez ere gaztelerazkoetan.

Edozein modutan, ez da sistematizatuta dagoen kontua, idazkiaren egileak duen ohituraren araberakoa da. Berdin gertatzen da webgunean sartzen diren edukiakin. Ziklo batzuetan generoa errespetatuz idazten dute eta beste batzuetan ez da kontuan izaten eta gizonezkoen generoa erabiltzen da guztientzako.

Ahozko hizkuntzari dagokionean, gaztelaniako klaseetan irakasle batzuek kontuan dute eta generoa errespetatzen dute eta beste batzuek ez.

Bestalde, pertsonalari zuzendutako idazkietan euskara denez hizkuntza bakarra ez da hain nabarmena hizkuntza sexista.

### **b) OSPAKIZUN ZEHATZAK**

Atal honetan bi data aztertu genituen: martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen genuen ala ez ikusi genuen eta azaroaren 25ean Emakumeenganako Indakeriaren Kontrako egunean ezer egiten genuen aztertu genuen.

Data biak ospatu edo lantzen genituela konturatu gara baina ziklo bakoitzean era desberdinean eta inolako sistematizaziorik gabe, irakasleen arabera kasu askotan.

### **c) KANPOKO ESPAZIOEN ERABILERA**

Ziklo bitan egin genuen behaketa. Lehenengoa Haur Hezkuntzako jolasorduetan espazio publiko hori zelan erabiltzen zuten aztertu genuen eta ziklo honetako 5 urteko umeen kasuan ikusi genuen mutilek frontoia hartuta dutela baloiekin jokatzeko eta neskak hasi direla lagatzen espazio hori derrigortuta.

## **HEZKIDETZA PLANA**

Bestalde, DBHko neska-mutilen kasuan antzekoa gertatzen da, kirol espazioak mutilek hartu dituztela euren espazio propio legez eta neskak autobusen aparkalekuetan egoten direla bazterretan.

### **d) MATERIAL BATZUEN AZTERKETA**

Materialen artean aldeak daude argialetxeen artean. Egia da azkenengo urteotan egoerak hobera egin duela, hala ere, guk erabilitako zeinbait eskola liburuetan oraindik ere emakumeen irudia etxeko lanei eta zaintzari lotuta dago erabat eta gizonezkoen irudia arrakasta duten profesionalei lotuta. Askotan irakasle asko ez dira kontziente gai honek duen garrantziaren inguruan.

## **2) Helburu nagusiak eta espezifikoak**

Oinarrizko diagnostikoa egin ostean, esan dezakegu, ez garela zerotik hasiko baina orain arte egindako ez dagoela plan batera bildurik eta ez dagoela ezer adostu eta sistematizaturik. Arlo askotan bezalaxe, irakasleek gai honetan duten interesaren arabera mintegi batzuetan ekintza batzuk bideratzen dira edo ez.

Hori guztia kontuan hartuta eta jakinda sentsibilizazio lana sendoa eta klabea izango dela arlo honetan aurrera egin nahi baldin badugu, helburu nagusiak eta espezifikoak zehazteko gai izan gara eta jakin badakigu gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko lanean jartzeko pazientzia, konfiantza eta konstantzia ezinbestekoak izango direla.

Horretara, ikastolako pertsonalak talde moduan gure planeko edukien gaineko hausnarketa egin ostean, ekintzekin buru belarri lanean hasten denean, ondoko helburu nagusiak lortu nahi izango genituzke epe luzera begira:

1) Ikastolako harremanetan bikaintasun maila bat lortzea, hau da, harremanak errespetuzkoak izatea, arduratsuak, autonomoak, konfiantzazkoak, pertsonen zaintzaren aldekoak, ingurumen eta ikastolarekiko errespetuzkoak. Beraz, hezkidetzaren oinarrizko printzipioa lortzea.

2) Edukien barneratzeko orduan bikaintasun maila lortzea, hau da, irakaskuntza-ikasketa prozesuen ondorioz, ikasleek eta irakasleek jasotzen dituzten edukiak egokiak izatea sexismoak ezartzen dituen mugarik gabe eta generoaren markarik gabe

3) Hezkidetzaren printzipioetan oinarritutako eskola antolaketa bat diseinatu eta abian jartzea gure ikastolan berdintasunerako hezkuntza baten alde lan egiteko, gizarte justu eta orekatuagoa lortzeko, benetako gizarte demokratikoa emakumeenganako indarkeriaren prebentzioan lan egingo duena.

## HEZKIDETZA PLANA

Horretarako, konpromezua hartzen dugu helburu horiek lortzeko oztopo diren desberdintasun eta diskriminazioak bistartzeko eta horiek desagertarazteko lanean jarduteko. Helburu potoloak direla argi dago baina argi daukagu genero-indarkeriaren prebentzioan lan egin nahi baldin badugu aldaketa handiak egin beharko direla gure antolamenduan eta erronka handiak izango ditugula aurretik.

Hala ere, helburu nagusi horiek zehaztu ostean, helburu espezifiko bat argi daukagu ikastolako pertsona guztiekin adostu eta jorratu behar duguna.

1) Hezkidetza eta genero-indarkeriaren planean inplikatzeari buru belarri ahalik eta langilerik gehien (irakasle eta gainerako pertsonala). Horretarako, benetan kobentzitu behar ditugu merezi duela betaurrekoak aldatu, orain arte ikasitakoa desikasi eta helburu hori lortzen abian jarri behar dugula guztiok elkarturik.

Helburu orokor horrekin batera, baditugu zenbait helburu espezifiko zehaztuta datorren urterako eta baita helburu horiek lortzeko jarduera batzuk ere:

### 4. 2014-15 urterako kronograma

Helburu espezifikoak	Ekintzak	Ikasturtea	arduraduna	adierazleak
1. Hezkidetzako planean eta genero indarkeriaren prebentziorako proiektuan pertsonala inplikatzeari buru belarri inplikatzeari buru	-Sentsibilizazioa eta hizkuntzaren erabilera sexistarik ez egitea	2014ko urria	-Hezkidetza arduraduna Hezkidetza batzordearen laguntzaz	--- Lehentasunezko gaiak identifikatu
	-Diagnostikoaren datuak aztertu eta eztabaida	2014ko azaroa	-Hezkidetza arduraduna eta hezkidetza batzordea	-diagnostikoari oniritzia eta gai garrantzitsuak identifikatu eta adostu
2. Irakasleak buru belarri inplikatzeari buru	-Irakasleentzako Prestakuntza egin	2015eko urtarrila-otsaila	-Hezkidetza arduraduna	-Saioak zenbatu eta baloratu
3. Plana familiei banatzea	-familiei planaren berri ematea	2015eko apirila	-ikastolako zuzendaritza	-familien balorazioa
4. Ikasleak inplikatzeari buru	Hezkuntza-sistemaren erronken inguruko hizketaldi bat egitea	2015eko bigarren eta hirugarren ebaluaketa	-hezkidetza arduraduna	-egindako saioak -laburpen dokumentua
5. Famili eta ikasleek parte hartzea	-webgunean hezkidetzarako gune bat	2015eko apirila	-hezkidetza batzordea	-egindako proposamenak batu

hobekuntza proposamenetan	zabaltzea			
6. Urteko memorian txertatzea eta eskola kontseiluan aurkeztea	-memoriak batu	2015eko hiru hiru hiru	-zikloetako zuzendariak eta hezkidetzaren arduraduna	-kontseiluaren balorazioa

## 5. Hurrengo urteotarako helburuak eta jarduerak

2015-16 eta 2016-17 urteotarako ere beste helburu espezifiko batzuk ditugu aurreikusita eta azken horiek garatzeko ekintzak ere.

2014-15 urteko lana izango da hein handi batean sentsibilizazio eta prestakuntzari dagokiona. Sentsibilizazioa ikastolako pertsonal guztien artean, gurasoen artean eta ikasleen artean. Horren ostean, aurrerapausu sendoak emateko prest egongo gara uste dugu. Horretara, erronka potoloagoak izango ditugu helburu legez. Beste batzuen artean ondokoak:

1. Hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredu sakon aztertzea eta genero ikuspegia sartzeko apurka-apurka ikastolako kultura, politika eta praktiketan, planteamendu integrala batez:

- Material didaktiko ez-sexistak berrikustea eta aztertzea
- Material berrien sorkuntzan generoaren ikuspegia kontuan hartzea
- Irakasleen prestakuntza sendoa
- Espazioen erabilera eragitea

2. Ikasleak orientatzea bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bide egokia aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapenik gabe.

-Ikasketetan zein lanbidean era ez-sexistan orientatzea. hezkuntza-sisteman sustatzea genero-ikuspegia, hautazkotasuna, proiektu pertsonalak etab. errespetatuz.

3. Harreman afektibo-sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezteko, sexu aniztasunean eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarrituta.

- Irakasleei hezkuntza afektibo-sexualeko eta sexu-aniztasunerako prestakuntza ematea
- Ikasgeletan hezkuntza afektibo-sexualeko proiektuak ezartzea

4. Genero-indarkeria prebenitzea, kasuak goiz hautematea eta biktimei arreta eraginkorra ematea, hezkuntza komunitate osoa modu berezian inplikatzuz.

- Hitzezko tratua oneko kanpainak
- Ikasgelaren arauak eta kudeaketa sortzea genero-ikuspegia onarri hartuta.
- Harremanetan indarkeria eta mikroindarkeria identifikatu ahal izateko jarduerak
- Azaroaren 25aren inguruko ikastolako kanpainak

-Prebentzioko sozializazioa, erakarpen-ereduak, maskulinitate berriak, feminitate berriak, mikroindarkeriak....  
-Jazarpen homo eta lesbofobikoa

## **5. Memoria eta ebaluaketa**

2015 urtearen amaieran planaren jarraipena egin ostean, memoria idatzi eta ebaluaketa bat egingo dugu hezkuntza batzordean aurkeztu eta eztabaidatzeko.